

Proiektu pilotuen 2. mahaia

2020ko maiatzaren 12a

.....

Bileraren helburua

Pilotuen arteko topalekua sortzea eta transferentzia-produktuen nahiz -prozesuen gainean elkarrekin lan egitea.

Parte-hartzaileak

Beatriz Acha, Asier Amezaga, Asier Arevalo, Goizalde Atxutegi, Itziar Calvo, Irene Intxausti, Ibane Muniategi, Joseba Muxika, Itziar Solozabal, Koldobike Uriarte.

Gai-zerrenda

Ongietorria

Guztiok konektatu garenean, aurkezpen-erronda bat egin dugu, eta lineako plataforman lan egiteko gidalerro batzuk eman ditugu.

Bileraren egitura azaldu dugu.

Proiektu pilotuen aurkezpena

Lau pilotuek azaldu dute zein egoeratan dauden hala pilotua, nola transferentziak, honako gai hauei helduz:

- Zer egin dugu?
- Zein puntutan gaude?
- Premiak
- Aukerak edo aurkikuntzak
- Egin beharreko urratsak

Transferentziei buruzko elkarrizketa

3. Konpromiso Taldeak proiektuen transferentziei buruz egindako ekarpenak partekatu ditu TIPIko Itsaso Larramendik. Era berean, proiektu bakoitzaren buruek haien iritzia eman dute, eta, gero, transferentzien gainean sorturiko zalantzen eta premien inguruan hitz egin da parte-hartzaile guztien artean.

Elkarrizketaren edukia dokumentu honen "[Akta](#)" atalean dago jasota.

Akta

Transferentziei buruzko elkarrizketa

Hona hemen 3. Konpromiso Taldeak proiektu pilotu bakoitzaren transferentziei buruz egindako ekarpenak eta pilotuen mahaian sorturiko iritzia eta ekarpen berriak.

Etorkin Rekalde

Transferentziak

- Etorkinen parte-hartzea aztertzeko pilotaje-prozesu bat zehazteari begirako maximoak definitzeko dokumentua.
Dokumentu hori 1. fasean egin zen, eta, hortaz, itxita dago. Prozesuan erabilitako metodologiaren berri ematea zen xede nagusia.
- Prozesu parte-hartzailea ezartzearen ondoriozko ebaluazio- eta transferentzia-dokumentua.
Egiteko geratu da. Prozesuaren praktikaren berri ematea da xede nagusia.

3. Konpromiso Taldearen ekarpenak

- Migratzaileekiko harremana
WhatsApp aplikazioak oso ondo funtzionatzen du. 2019aren amaieran, teknologiarri buruzko tailer bat egin nuen bakarrik dauden gazte atzerritarrekin, eta WhatsApp-en bidez komunikatzen nintzen 72 gazterekin. Hizkuntza zela-eta, ez zioten telefonoari erantzuten, baina WhatsApp-i bai.

Ñabardurak edo horri buruzko iritzia

- WhatsApp komunikazio-bitarteko gisa erabiltzeko proposamenari dagokionez
Bilboko Udalean, aholkulari publikoek duela denboratxo bat aztertu zuten aplikazio hori, administrazio publikoa administrariekin harremanetan jartzeko tresna izan zitekeen jakiteko, eta segurua eta baliozkoa ez zela ondorioztatu zuten. Jendea ezin daiteke derrigortu konpainia pribatu baten erreminta bat deskargatzera.
- Udalaren eta herritarren arteko komunikazioari dagokionez
Udalek segurtasun handi-handiarekin egiten dute lan, baina herritarrekin konektatzeko zailtasun ugari izaten dituzte. Sekulako deskonexioa dago, segurtasunaren izenean geure buruari ezartzen diogun neurriaren ondorioz. Izugarritzko desabantaila-egoeran uzten gaitu horrek, herritarren artean ondo funtzionatzen duten kanalak daudela jakinda. WhatsApp-en bertsio hobe bat dago, ezta? Bere garaian, Telegram.

Pilotuen Mahaiaren ekarpenak

- WhatsApp-en ordez Telegram erabiltzea proposatu da; 112ak eta Eusko Jaurlaritzak erabiltzen dute. Bestetik, esan beharra dago WhatsApp Business aplikazioak segurtasun-alderdiak hobetu dituela.
- Transferentziari gaineratu zaizkion gidalerroak (prozesuak birbideratzekoak) oso interesgarriak dira, prozesuak berbideratzeko eta prozesuok linean duten presentzia handitzeko premia ziklikoa bihur daiteke-eta.
- Alderdi teknikitik edo azaldukatotik harago, nola helaraz daitezke zatiak (litekeena baita produktu osoa ez izatea) jende gehiagorengana? Garrantzitsua izango da horri buruz pilotu guztien artean pentsatzea.
- Nola ireki prozesua herritarrei? Rekaldeko proiektuan, pertsona giltzarri jakin batzuei egingo zaizkien telefono-deiak erabil litezke. Telefonoz hitz egitean, lotura berezia sortzen da, horixe izaki talde eragile bat sortzeko unean nekezena. Talde eragilea

jende mistoarekin eratzeko aukera ematen du; hots, herritarren agente horiekin eta bestelako teknikari eta udal-agenteekin eratzekoa. Talde eragile batek izugarri lagundu dezake deialdia diseinatzen, erabiltzen diren kanalak egokiak diren ala ez jakiten, agente giltzarriak detektatzen eta, jakina, emaitza kontrastatzen.

- Pilotu honen bidez, metodo bat probatzen saiatzen ari gara. Balioetsi dugunez, Internet ez da migratzaileentzako biderik egokiena, baina, nolana ere, egingo den galdetegia oso elementu eramangarria da, eta lan handia egin da bestelako edozein eremutan erabili ahal izan dadin. Erabiltzen ari diren tresnak eta haien produktua analisi berbera egin nahi duen edozein erakundera (erakunde, elkarte, talde, kolektibora...) eraman ahalko dira.

thinking Fadura

Transferentziak

- Getxo Kirolak erakundearen barne-egituran parte hartzeak duen inpaktua ebaluatzeko kita

Honako elementu hauek edukiko ditu: ebaluazio-arloen zehaztapena, ebaluazio-mugarriak, adierazle-multzoa, ebaluaziorako ereduak inprimakiak eta, azkenik, barne-egitura inplikarazteko eta herritarrek igurikimenak kudea ditzaten lortzeko gako batzuk.

3. Konpromiso Taldearen ekarpenak

- Zehaztutako produktuak
Kita oso interesgarria da, politika publikoen errendimendua hobetzeari begira. Ikaskuntza ebaluatzeaz ari garela, kita bera ebalua liteke hemendik urte batzuetara?
- Kitaren hartzaile xedeak
Kita herritarrekin zuzenean aritzen ez diren baina zerbitzuen prozesuetan esku hartzen duten administrariei ere zuzenduta dago?
- Formatuak eta bitartekoak
Ebaluazio-kita kudeaketa aurreratuko tresna gisa erabil liteke gizartearen eta pertsonen elementuetan, eta halaxe heda liteke eremu horretan lan egiten duten erakundeetara (adibidez, Q-Epea izenekora).
- Formatuak eta bitartekoak
Interesgarria litzateke webeko artikularen eta prentsa-oharraren bertsio errazago bat egitea, hizkuntza soilagoa izango duena, dokumentua oso teknikoak izango baina seguruenik. Ondo egongo litzateke bestelako hedapen-bideak edo azalpen-bilerak aurreikustea herritarrentzat.

Ñabardurak edo horri buruzko iritziak

- Alarma-egoera dela-eta, transferentziak itxura desberdina hartu du. Oraintxe bertan, egiturako agenteak pixka bat gehiago nola inplika daitezkeen jakiteko kit bat litzateke; hau da, inplikazio handiagoa lortzeko aintzat hartu behar diren gako batzuk ematea da kontua.

Pilotuen Mahaiaren ekarpenak

- Nor da kitaren hartzailea? Erakunde bateko teknikari guztiek lehenengo unetik bertatik ulertu behar dute herritarren parte-hartzea ez dela erakunde horri ez dagokion zerbait: erakundearen barru-barruan dago, eta arlo bakoitzak parte-hartze horretatik ateratzen dena jasotzen eta garatzen joan behar du. Horixe da xedea.
- Kita sekulako produktua da, baina zalantza bat sortu zaigu: Benetan, non ari zarete detektatzen jende hori eguneroko lanean inplikatzeke zailtasuna? Oraindik ez da lortu pertsona horiek prozesura bertara sartzea?
 - Udal askotan agertzen da tentsio hori. Lehenik eta behin, sentsibilitateen arteko talka dago: batzuk erakundea irekitzearen aldekoagoak dira, eta horrekin sentsibilizatuago daude; gobernamendu-gune berri bat sortu nahi dute. Beste batzuen ustez, ordea, administrazio publikoak kudeatu behar du publikoa den oro, eta kudeaketaren prozesu pertsonal teknikoan nik agintzen dut, nire ezagutza teknikoarekin. Bestetik, ezagutza teknikoaren kontua dago, eta, hirugarrenik, beldurrak daude. Bada, hiru alderdi horien ondorioz, sekulako koska sortzen da herritarren parte-hartzea areagotzeko borondate politikoaren eta teknikarien jarreraren artean. Pedagogia-lan handia egin behar da; hau da, hori guztia gorpuzten joateko eta elkar ulertuko dugun toki komun bat sortzeko lan egin behar da.
- Erakundeen barruan zeharkako gobernamendu-egiturak egoteak oso ondo funtzionatu ohi du. Gipuzkoako Foru Aldundian, zuzendaritza guztiek (baita ahaldun nagusiaren kabineteak ere) eraturako sailarteko sail bat daukate, eta foru-dekretuen bidez esleitzen zaizkio eskumenak. Funtzionatu egiten du, eta parte hartzeko prozesuak nahiz erakunde osoa inplikatzen duten zeharkako proiektu sektorialak bultzatzeko balio du.
- Ikaskuntzaren sistematizazioan, interesgarria izan liteke barne-mailan entzuteko premia txertatzea. Sarritan lantzen ez den fasea izaten da hori, eta “ez dute parte hartzen” ideiarekin geratzen gara. Barne-mailan entzuteko orientabide-sorta bat.
- Parte hartzeko liburu zuriaren prozesuan, Innobasque Parte Hartuz ikerketa-taldearekin aritu zen [«Parte-hartzearen korapiloak» dokumentua](#) egiten. Lurralde teknikoari buruzko atalak diagnostikorako gako interesgarriak eman ditzake.
- Aurkezpenean azpimarratu dituzuen gakoaren artean, hizkuntzaren garrantzia agertu da, eta ebaluazioaz hitz egin ordez diagnostikoaz hitz egitea hobe dela adierazi duzue, pertsonak epaituta senti ez daitezten. Pilotu ia guztietan ari da azalartzen hizkuntza bateratu eta prozesuetara egokitu bat eraikitzeke premia.

Aurrekontu irekiak

Transferentzia-produktua

- Aurrekontu parte-hartzaileen inguruko gako-sorta bat jasotzen duen dokumentua
Udal batek aurrekontu parte-hartzaileen prozesu bat prestatzeko orduan nahiz dagoeneko badiren prozesuak ebaluatu eta berrerratzeko orduan hausnartu beharko litzatekeen gakoak dira. Ahalik eta toki-erakunde gehienetara iritsi ahal izateko dokumentu bat egingo da, identifikatutako gakoen berri emateko.
- Tokiko aurrekontu parte-hartzaileen bost esperientziaren azalpena
Hiru lurralde historikoetako udalerriak dira, neurri eta errealitate desberdinak nahiz eskarmentu nahikoa dauzkatenak.

3. Konpromiso Taldearen ekarpenak

- Dokumentua
Interesgarria litzateke HowTo dokumentuen ukitu bat edukitzea. Zerk funtzionatu duen, zerk ez, zergatik eta testuingurua. Pertsona guztiak ez gara berdinak, ezta testuinguru guztiak ere.
- Transferentziaren bigarren fasea
Oso jarduera interesgarriak proposatu dira. Batetik, egindako lanaren balioa handituko litzateke, eta, bestetik, pilotuan lan egin duten erakundeen eta pertsonen sarea indartuko litzateke.
- Esperientzia eta jarduera onetarako esteka
Transferentziaren bigarren fasean egiteko aurreikusi den arren, beharbada lehenengo dokumentuan txerta liteke, zati batean, edota aurkezpena egiteko bilera bat egin liteke, duen izaera «didaktikoarengatik».

Ñabardurak edo horri buruzko iritziak

- Transferentzian HowTo atal bat txertatzeko iradokizunari dagokionez, esan beharra dago hamaika forma har ditzaketen ondorio eta elementu praktikoek osatzen dutela prozesuaren emaitza. HowTo bezala egiten saiatu gara, baina zerk funtzionatu duen eta zerk ez azaltzeko. Prozesuak prestatzeko orduan dauden elementu eta erabaki giltzarriak zehaztu ditugu, eta horien inpaktuak mahaigaineratu. Alabaina, zaila da funtzionatzen duten ala funtzionatzen ez duten esatea, tresna berberak udal batzuetan funtzionatzen duela eta beste batzuetan funtzionatzen ez duela ikusi baitugu bost udal horietan.

Pilotuen Mahaiaren ekarpenak

- Ona litzateke transferentzian gida-formatuari ihes egitea. Lehengo, testuingurua ondo ulertzea da garrantzitsuena, eta, horren ondoren, urratsez urrats zer irabazten den, zer galtzen, zertan arriskatzen den... argitzen joateko pieza

estrategiko eta eragileak zehaztea. Testuingurua oso garrantzitsua da, aurrekontu parte-hartzaileei buruzko gida asko daudelako, eta oso onak, baina erreminta ulertzeko testuinguruaren irakurketak falta direlako.

- Transferentzia zehazteko ondorioak ateratzeko orduan, kontuz ibili behar da herritarren kontrastean jasotako mezua interpretatzean. Transferentzia-elementuetan mezu horiek jasotzen direnean, arretaz jokatu behar da, ekarpen interesgarriak badira ere ikuspegi partzialak direlako; hots, norberaren onurarako har daitezkeen mezua egoteko arriskua dago. Ez diegu aukerarik eman behar.
- Bost esperientziak eta bi kontraste-taldeek ekarpenak biltzen dituen dokumentuak berak hausnarketaren bat egiteko eta alde onak nahiz txarrak zerrendatzeko balio dezake. Ez gaitzen hor gera, eta aztertu dezagun llib-a lantalde berri bat izateko aukera: aurrekontu parte-hartzaileetarako proposamenak aztertzen jarraitu ahal izateko gunea izan daiteke.
- Etorkizunari begira, erantzunkidetasun-plano batean jarri gaitu COVIDaren egoerak, zentzu guztietan, eta, hor, aurrekontu parte-hartzaileak pedagogia nahiz erantzunkidetasuna lantzeko tresna ona izan daitezke. Izan ere, parte-hartzean berritzea da llib-aren oinarria. Bizitzen ari garen inguruabar konplexu honetan, izaera berritzaile horixe izan daiteke proiektu honen gakoak; hots, unean-uneko egokitzapenak egitea.
- Democracia en Red erakundearen [¿Cómo hacer un Presupuesto Participativo?](#) izeneko dokumentua erantsi dugu adibide modura. Tipologiak, demokrazia deliberatiboaren ikuspegia eta digitalaren eta aurrez aurrekoaren hibridazioa jasotzen dira bertan.

Parte-hartze osasungarria

Transferentzia-produktua

- Prozesu parte-hartzaileetan osasunaren ikuspegia txertatzeko gida orientagarria (transferentzia nagusia)

Prozesu parte-hartzaile komunitarioak sustatzen dituzten agenteek jarraitu beharreko zenbait gidalerro jasoko ditu, eta prozesuak garatzeko orduan sor litezkeen ekarpen, iradokizun edota gomendio berrietara irekitako eredu orientagarri eta malguak izango da, prozesu horien izaera eta jardun-eremua edozein izanik ere.
- Osasun-arloko aktiboen mapaketa

Komunitate bateko kide guztiak proiektu jakin baten barruan osasun-arloko aktiboak identifikatzen inplikatzeko estrategia da; hau da, pertsonen premiei eta nahiei erantzun diezaieketen aktiboak balioa eman eta horiek ikusgai egiteko estrategia.
- Mentimeter aplikazioa

Osasunari, ongizateari, osasun-arloko ekitateari, osasun-arloko aktiboak eta parte-hartze komunitarioari buruzko hizkuntza bateratua ezartzeko prozesuan erabilizko tresna da.

3. Konpromiso Taldearen ekarpenak

- Parte-hartzea eta salutogenia
COVID-19aren gaietako bat adinekoak dira, bai eta anbulatortara joateko dinamika

ere. Adinekoengan dinamika salutogenikoak garatu litezke, prozesu parte-hartzaileetatik abiatuta?

Ñabardurak edo horri buruzko iritziak

- Ez dakit ekarpen horrek proiektuarekin zerikusi handirik duen. Badakigu oso zaila dela proiektua ulertzea. Pilotuaren ondoriozko osasun-gidak osasunarekin edo bestelako edozein gairekin zerikusia daukaten prozesuetarako balioko du.

Pilotuen Mahaiaren ekarpenak

- Transferentzia zehazteko orduan, kontuan hartu behar da proiektuak nahasmendua sorrarazten duela. Parte-hartze on batek hobeto sentiarazten gaitu, eta harreman hobeak eraikitzea ahalbidetzen digu; bada, azken batean, diseinu-, betearazpen- eta ebaluazio-irizpideek egiten dute parte-hartze bat ona. Alabaina, proiektu honen berri ematean, askok eta askok anbulatorioarekin lotzen dute.
- «Prozesu parte-hartzaileen ahalmen salutogenikoa» izenburua nahasgarria da; ez da ulertzen. Transferentziaren eremuan, gai hau indartu behar dugu, kontuari buruzko ebidentzia zientifiko eta esparru teoriko zabala baitago. Horretaz gain, garrantzitsua izango da argiak izatea, komunitatea eratzeko ahalmena dugun agente guztiok kode berebean egin dezagun lan.
- Transferentziaren arloan, interesgarria da ikustea normalean elkarrekin lotzen ez diren bi eremuk (osasunak eta parte-hartzeak) komunikazioaren aldetik eta toki "sozial" batean elkar indartu dezaketela.

Transferentziei buruz, oro har

- Giltzarria izan daiteke honako galdera hau egitea: dagoeneko ezarrita dauden zein egitura edo taldetan ari dira transferentzia-produktuen «eremu hartzaileetan» lan egiten? Adibidez, Aurrekontu Irekiak Eudel-en, Q-Epea aipatu da.